# PORTUGALETEKO PARTE-HARTZE ESKOLA

# ESCUELA DE PARTICIPACIÓN DE PORTUGALETE



## PRESTAKUNTZA LANTEGIAK

## TALLERES DE FORMACIÓN

2018 AZAROA-2019 MAIATZA / 2018 NOVIEMBRE-2019 MAYO

Ayuntamiento de Portugaleteko Udala

Adaka
PORTUGALETEKO BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO DE PORTUGALETE

Portugalete FUNDACIÓN Manuel Calvo

Izen-ematea doan
Inscripción gratuita





Portugaleteko Udalean 2011. urtean ekin genion herritarren parte-hartzea txertatzeari udal eremuko erabakiak hartzeko prozesuetan, jakin bagenekielako garai berrietan politika egiteko modu berriak behar genituela, batez ere udaletxe batean, hots, herritarrengandik erakunde gertuenean; Toki Erakundeak, beraz, leiho-ateak zabaldu behar zituen gardentasun osoz, eta komunikabide arin zuzenak ezarri herritarrekin.

Horrexegatik sortu genuen Herritarren Parte Hartze eta Gizarte Berrikuntzarako Udal Saila eta bizikidetza eta Giza Eskubideen I. Plana onetsi genuen. Ordutik aurrera, jarduketa franko burutu dugu, beti ere udal sailen proiektuetan parte-hartzea txertatu nahian. Jarduketa hauek kontsultatu ahal dira **www.portugaleteon.org** web orrian.

Horiek horrela, herritarren parte-hartzeak tresnak behar dituelarik benetan gauzatu ahal izateko, funtsezkoa da tresna horien berri izatea, eskubide hori arduraz erabiliko badugu. Horrexegatik da hain garrantzitsua Parte Hartze Eskolaren lana, prestakuntza saioak eskaintzen baititu beharrizan horri erantzun egokia emateko.

Eskuan duzun argitalpen honen bitartez, 2018-2019 ikasturteko prestakuntza saioak aurkeztu nahi dizkizugu. Denak dira doakoak, askotarikoak, profesional ospetsuen eskutik datozkigu eta eremu interesgarri zenbait jorratu nahi dute, hala herriko elkarteak nola herritar aktiboak erakartzeari begira.

Gonbit egiten dizut, beraz, proposamenak arretaz aztertzeko eta, jakina, ikastaro eta lantegietan parte hartzeko.

Har ezazu besarkada bat,

Ya en el año 2011 en el Ayuntamiento de Portugalete apostamos por integrar la participación ciudadana en los diferentes procesos de toma de decisión en el ámbito municipal. Éramos conscientes de que los nuevos tiempos requerían una nueva forma de hacer política, sobre todo en la institución más próxima a la ciudadanía, el Ayuntamiento. La Administración Local debía abrir sus puertas y ventanas a la transparencia y establecer canales de comunicación directa con los vecinos y vecinas.

Así, creamos el Área de Participación Ciudadana e Innovación Social y aprobamos el I Plan Municipal de Convivencia y Derechos Humanos. A partir de ese momento se han realizado numerosas acciones para introducir la participación en los proyectos de las diferentes áreas municipales, acciones todas ellas que se pueden consultar en la página **www.portugaleteon.org**

Pero, dado que la participación ciudadana requiere de herramientas que la hagan posible, es fundamental conocerlas para poder ejercer este derecho de una manera responsable. Por eso es importante la labor que realiza la Escuela de Participación y la propuesta de acciones formativas que den respuesta a esta necesidad.

En esta publicación que tienes en tus manos te presentamos la oferta para el curso 2018-2019, una oferta gratuita que cuenta con profesionales de reconocido prestigio y que pretende ser variada y abarcar diferentes aspectos de interés tanto para las asociaciones como para la ciudadanía activa.

Te animo, por tanto, a descubrir estas propuestas y a participar en los diferentes cursos y talleres.

Un abrazo,

**Mikel Torres**
Alkatea / Alcalde

# LANTEGIA: ELKARTEAK ETA DATU PERTSONALAK BABESTEA

## Dinamizatzailea

**NAIARA SOUTO**



Abokatua, Datu Pertsonalen Babesean eta Zuzenbide Digitalean aditua. Sektoreko profesional honek hamabost urte daramatza berariazko irtenbide sortzaileak bilatzen betiere bere bezeroek ohiko jardunean datuak babesteko arautegia bete dezaten.

Enpresa eta erakunde mota askotarikotzat jardun du, esaterako, PYMESentzat, enpresa handientzat, Administrazio Publikoarentzat baita irabazi asmorik gabeko entitateentzat ere. Horiexei guztiei datuak babesteko aholkularitza-eta auditoretza-proiektuak egin dizkie.

Hainbat forotan ere gaiari buruzko eskolak eman ditu. Azken hamar urteotan EDE Taldea irabazi asmorik gabeko entitate-taldean aritu da. Horren karietara, Hirugarren Sektoreko entitateez eta haien berezitasunez ezagupen sakonak ditu.

## Helburuak

- Datu pertsonalak babesteko kontzeptu eta ideia oinarrizkoak ulertzea.
- Datuak babesteko betebeharrak ezagutzea.
- Arautegia betearazteko gidalerroak ezartzea.

## Edukiak

Datu Pertsonalak babesteari buruzko testuingurua • Egungo egoera. Europako arautegi berriak dakartzan berrikuntzak • Datuak babesteari buruzko kontzeptu oinarrizkoak • Betebehar nagusiak • Erantzukizun proaktiboa eta segurtasunaren kudeaketa • Herritarren eskubideak pribatutasunari dagokiolarik.

## Metodologia

Metodologia lantegi-formatokoa izango da. Giltzarri diren kontzeptuekin batera elkarteen errealitatera egokitutako adibide praktikoak ere landuko dira.

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Gazte Gela**
**Maestro Zubeldia z/g • 48920 Portugalete**

**2018ko azaroaren 17ko eta abenduaren 1eko larunbatetan**
10:00-13:00

# LAS ASOCIACIONES Y LA PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

## Dinamizadora

**NAIARA SOUTO**

Es abogada, experta en Protección de Datos Personales y Derecho Digital. Con más de quince años de experiencia en buscar soluciones creativas a medida, esta profesional del sector posibilita que su clientela integre el cumplimiento de la normativa de protección de datos en su actividad ordinaria.

Ha prestado servicios para todo tipo de empresas y entidades: PYMES, grandes empresas, Administración Pública y entidades no lucrativas, a las que ha asesorado y realizado proyectos de consultoría y auditoría de protección de datos, además de impartir formación sobre la materia en diferentes foros.

Lleva los últimos diez años desarrollando su carrera en el grupo de entidades sin ánimo de lucro EDE TALDEA, alcanzando un conocimiento profundo de las entidades del Tercer Sector y su peculiar idiosincrasia.

## Objetivos

- Comprender los conceptos básicos y principios fundamentales de la protección de datos de carácter personal.
- Conocer las obligaciones de cumplimiento de la protección de datos.
- Establecer pautas para cumplir con la normativa.

## Contenidos

Contextualización de la protección de datos personales • Situación actual. Novedades con la nueva normativa europea • Principios generales y conceptos básicos en relación con la protección de datos • Obligaciones principales • Responsabilidad proactiva y gestión de la seguridad • Derechos de la ciudadanía en relación con su privacidad.

## Metodología

Será una metodología formato taller, se combinarán las exposiciones de conceptos clave con ejemplos prácticos aplicados a la realidad de las asociaciones participantes.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas de entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Aula Joven**
**Maestro Zubeldia s/n • 48920 Portugalete**

**Sábados 17 de noviembre y 1 de diciembre de 2018**
10:00-13:00

# LANTEGIA: PENTSAMENDU BISUALA. LAN-DINAMIKA PARTE-HARTZAILE BERRIEN ERABILPENA

## Dinamizatzailea

**IBON GARMENDIA**



Manahmana enpresako erraztailea. Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan (LEINN) Mondragon Unibertsitatean graduduna. Team Mastery Programa Mondragon Unibertsitatean (talde-coaching). Proiektuak inkubatzeko diseinuan aritua. Nazio eta nazioarte mailan (Europa, Asia, Ipar Amerika eta Latinoamerika) esperientziaduna.

## Helburuak

**Helburu orokorra:** parte-hartzaileei pentsamendu bisualaren gaineko gaikuntza (trebetasunak, tresnak eta haien aplikazioa) ematea beste hizkuntza bat izan baitaiteke haien lanean dinamika berriak bultzatze aldera.

**Helburu zehatzak:** pentsamendu bisualaren oinarriak ezagutzea • Ikustea ea kontzeptu horiek aplikagarriak diren parte-hartzaileak kontuan hartuta. Hala, ikusiko da zein egoeratan erabili ahalko den beste hizkuntza batzuekin uztartu ahal izateko • Parte-hartzaileak dinamiketan eta tresnetan gaitzea bai bileretan bai ikasteko guneetan guztiek elkar ulertzearen mesedetan • Ikonografia oinarrizkoa eta lan-txantiloiak diseinatzen jakitea egunerokoan erabiltzeko xedez.

## Edukiak

**1. saioa**

**Zer da pentsamendu bisuala?** Gakoak eta erabilpena. Oinarrizko hiztegi bisuala: zehatzetik abstraktura. Nola islatu ideiak. Pentsatu bisualki: irudikatu, behatu, ikusi, islatu. Lan egiteko era bisualagoak bultzatzeko material egokiak.

**2. saioa**

**Saioen diseinua:** irekiera, azterketa eta itxiera. Ideiak sortu, klusterizazioa eta aukeraketa. Buru-mapak: zer diren eta zertarako balio duten. Metaforen indarra. Oinarrizko txantiloiak eta dinamika lotuak.

**3. saioa**

**Komunikazio-bideak:** arrazoia, hitzak, emozioa, ekintza. Material bisualak erabili lan-mailaren arabera. Saio parte-hartzaileak diseinatu: lan-taldeen eta azpitaldeen artea. Role-playinga txantiloi bisualekin eta dinamika lotuekin.

## Metodologia

Lantegi moduko metodologia erabiliko da. Gakoak diren kontzeptuen azalpenak elkarte parte-hartzaileen errealitateari aplikatutako adibide praktikoekin uztartuko dira.

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Santa Klara kulturtegia. Bilera-gela. Bigarren solairua.**
**Casilda Iturrizar kalea 10 • 48920 Portugalete**

**2018ko azaroaren 19a, 21a eta 26a**

10:00-13:00

# TALLER: PENSAMIENTO VISUAL. UTILIZACIÓN DE NUEVAS DINÁMICAS PARTICIPATIVAS DE TRABAJO

## Dinamizador

**IBON GARMENDIA**

Facilitador de Manahmana. Graduado en Liderazgo Emprendedor e Innovación. (LEINN) por Mondragon Unibertsitatea. Programa Team Mastery por Mondragon Unibertsitatea (Coaching de equipos). Experiencia en diseño de incubadoras de proyectos. Experiencia profesional nacional e internacional (Europa, Asia, Norteamérica y América Latina).

## Objetivos

**Objetivo general:** ofrecer a las personas asistentes capacitación en Pensamiento Visual (habilidades, herramientas y su aplicación) como otro lenguaje que permite impulsar nuevas dinámicas en su trabajo.

**Objetivos específicos**: conocer los conceptos en los que se sustenta el Pensamiento Visual • Descubrir entre las personas participantes la aplicabilidad de las mismas, detectando situaciones en las que poder combinarlo con otros lenguajes • Capacitar en dinámicas y herramientas para impulsar el entendimiento mutuo en reuniones y espacios de aprendizaje • Saber diseñar iconografía básica y plantillas de trabajo sencillas aplicables en el día a día.

## Contenidos

**Sesión 1**

**¿Qué es el Pensamiento Visual?** Conceptos clave y utilidad. Diccionario básico visual: de lo concreto a lo abstracto, cómo plasmar ideas. Pensar de manera visual: imaginar, observar, ver, plasmar. Materiales adecuados para impulsar nuevas formas de trabajo más visuales.

**Sesión 2**

**El diseño de sesiones:** apertura, exploración y cierre. Creación de ideas, clusterización y selección. Mapas mentales: qué son y para qué sirven. La fuerza de las metáforas. Plantillas base y dinámicas asociadas.

**Sesión 3**

**Canales de comunicación:** razón, palabras, emoción, acción. Utilización de materiales visuales en cada nivel de trabajo. Diseño de sesiones participativas: el arte del trabajo en grupos y subgrupos Role playing con plantillas visuales y dinámicas asociadas.

## Metodología

Será una metodología formato taller, se combinarán las exposiciones de conceptos clave con ejemplos prácticos aplicados a la realidad de las asociaciones participantes.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas de entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Centro Cultural Santa Clara. Sala de Convenciones 2ª planta.**
**C/Casilda Iturrizar, 10 • 48920 Portugalete**

**19, 21 y 26 de noviembre de 2018**

10:00-13:00

# LANTEGIA: KOMUNIKAZIO ERAGINKORRAGOA POSTA ELEKTRONIKOZ, MAILCHIMP PROGRAMARI ESKER

## Dinamizatzailea

**NAIARA PÉREZ DE VILLAREAL**

Aholkularia Interneten eta komunikazio digitalean aditua. 15 urteko lan-esperientzia du. EHUn kazetaritzan lizentziatua eta komunikazio digitalaren masterduna da. Komunikazio-proiektuak zuzentzen ditu. Marketinean eta Social Median aritua da erakunde publiko nahiz pribatuetan. Mondragón Unbertsitateko Leinn graduondokoan (Lidergoa eta Berrikuntza) gizarte-sareetarako estrategia-tailerrak ematen ditu. Webgune sozialaren tresnetan ere hezitzailea da pertsonei gaitasun digitalak garatzen laguntzen baitie. Gainera, ***Doce Miradas*** elkarlaneko blogkidea da.



## Helburuak

**Helburu orokorra:** Mailchimp tresnari buruzko ikuspegi orokorra izatea, posta elektronikoz egiten diren jakinarazpen eta kanpainetan erabil dadin.

**Helburu zehatzak:** aztertzea baita balioestea ere zein puntutaraino erraztu ditzakeen Mailchimp tresnak posta elektronikoz eginiko komunikazioak baita kanpainen kudeaketa ere • Elementu teorikoak eta praktikoak eskaintzea ikasteko nola erabili tresna eta zer lor daitekeen ere bai • Ezagutzea zer-nolako aukerak eskaini diezazkiekeen tresna horrek praktikotasunari dagokionez haien komunikazio eta kanpainen eragina aztertzeko orduan.

## Edukiak

**E-mail marketing-a:** e-mail marketing-aren hastapenak. Zergatik Mailchimp? Kontu motak. Kontua sortu. Kontua konfiguratu. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) Mailchimp-en.

**Harpidetzak eta zerrendak:** zerrenda bat sortu. Zerrenda konfiguratu. Web galdetegiak. Konfigurazioa. Diseinua. Itzulpena. Integrazioa.

**Kanpainak: sorkuntza, newsletter-diseinua eta bidalketa.** Kanpainak sortu eta kanpaina motak. Kanpainen konfigurazioa. Newsletters-ak diseinatu. Txantiloi pertsonalizatuak eta diseinua. Eduki-kutxak. Testu-kutxen edizioa. Pertsonalizazioa etiketa bidez. Irudi-editorea.

**Azterketa.** Kudeaketa eta txosten-azterketa. Aukera gehigarriak. Kanpaina eraginkorragoak egiteko aholkuak.

## Metodologia

Saioak erabat parte-hartzaileak izango dira. Bertaratuek gaiaz gogoeta egingo dutenez eztabaida irekia bultzatuko da. Horiek horrela, esperientziak elkarri trukatuta lantegia aberasgarriago suertatuko da.

**2019ko urtarrilaren 17a eta 24a**
10:00-13:00

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Informatika gela. UNED. Ignacio Ellacuría parkea, 3**
**48920 Portugalete**

# TALLER: COMUNICACIÓN MÁS EFICAZ A TRAVÉS DEL CORREO ELECTRÓNICO CON MAILCHIMP

## Dinamizadora

**NAIARA PÉREZ DE VILLAREAL**

Consultora en Internet y experta en comunicación digital, con 15 años de experiencia. Licenciada en periodismo por la UPV-EHU y máster en comunicación digital, dirige proyectos de comunicación. Marketing y Social Media para organizaciones públicas como privadas. Imparte talleres de estrategia en redes sociales en el postgrado de Leinn (Liderazgo e innovación) en Mondragon Unibertsitatea y es formadora en herramientas de la web social, acompañando a personas y organizaciones a desarrollar sus competencias digitales. Integrante del blog colaborativo ***Doce Miradas***.

## Objetivos

**Objetivo general:** obtener una visión general de la herramienta Mailchimp para poder ser utilizada en las comunicaciones y campañas que se realicen a través de correo electrónico.

**Objetivos específicos:** analizar y valorar en qué medida Mailchimp puede facilitar las comunicaciones vía correo y la gestión de campañas • Brindar elementos teóricos y prácticos relativos a cómo utilizar la herramienta y lo que pueden conseguir • Descubrir las principales oportunidades que les pueden ofrecer a nivel de practicidad a la hora de conocer el impacto de sus comunicaciones y campañas.

## Contenidos

**E-Mail marketing:** introducción al E-Mail Marketing. ¿Por qué Mailchimp? Tipos de cuenta. Creación de la cuenta. Configuración de la cuenta. El RGPD en Mailchimp.

**Suscripciones y listas:** crear una lista. Configurar la lista. Formularios web. Configuración. Diseño. Traducción. Integración.

**Las campañas: creación, diseño de newsletters y envío.** Creación y tipos de campañas. Configuración de campañas. Diseño de newsletters. Plantillas personalizadas y diseño. Cajas de contenido. Edición de cajas de texto. Personalización mediante etiquetas. Editor de imágenes.

**Análisis.** Gestión y análisis de informes. Opciones adicionales. Consejos para realizar campañas más efectivas.

## Metodología

Las sesiones tendrán un carácter participativo, con componentes de reflexión y abierta al debate entre las personas asistentes, enriqueciéndose con la puesta en común de experiencias.

**17 y 24 de enero de 2019**
10:00-13:00

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Aula de Informática. UNED. Parque Ignacio Ellacuría, 3**
**48920 Portugalete**

# LANTEGIA: EMOZIOEN ADIMENA HOBETO MOLDA GAITEZEN

## Dinamizatzailea

**SILVIA CARRERAS GRAZIA**



Gizarte Lanean diplomatua eta Lan Zientzietan lizentziatua. Bitartekari-lanak egiten ditu eta coach profesionala ere bada. Azken hamar urteotan banakako eta taldekako garapenaren arloa jorratu du. Lan-gatazketan bitartekari ere aritu da. Egun LKS enpresako giza-garapenaren taldeko aholkulari seniorra da.

## Helburua

Lantegi honek helburu du parte-hartzaileen emozioen adimena hobetzea. Hori lortzeko, eguneroko emozioak identifikatzen eta kudeatzen ikasiko dugu. Hori horrela izanik, osasun emozional hobea izango dugu.

## Edukiak

- Emozioen identifikazioa. Nola jakin zer sentitzen dudan gorputza eta gogoa ere erabiliz. Ikasi identifikatzen zer sentitzen duten besteek.
- Emozioen ulermena. Ulertzea emozioek zertara gonbidatzen zaituzten eta zer esaten diguten. Hala, ulermen hori bizitzan ohiko zerbait izango da.
- Emozioen kudeaketa. Emozioak baliatuta zerbait osasungarria egingo dugu norberarentzat eta ingurukoentzat ere bai. Horretarako, gorputzeko teknikez gain, kognitiboak direnak ere erabiliko ditugu.

## Metodologia

Lantegi praktikoa, edukiak dinamikoki eta era dibertigarri batez barneratzen laguntzeko.

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Santa Klara kulturtegia. Casilda Iturrizar kalea 10 • 48920 Portugalete**

**2019ko otsailaren 13a, 20a eta 27a**

10:00-13:00

# TALLER: INTELIGENCIA EMOCIONAL PARA FUNCIONAR MEJOR

## Dinamizadora

**SILVIA CARRERAS GRAZIA**

Diplomada en Trabajo Social y Licenciada en Ciencias del Trabajo, es además Mediadora y Coach profesional. Durante los últimos 10 años, se ha dedicado al desarrollo personal y de equipos además de a la mediación en conflictos laborales, formando parte en la actualidad como consultora senior del equipo de desarrollo de personas de LKS.

## Objetivo

Este taller persigue el objetivo de mejorar la inteligencia emocional de las personas participantes, aprendiendo a identificar y gestionar las emociones más presentes en su día a día, para llegar a una mejor salud emocional.

## Contenidos

- La identificación emocional. Cómo saber lo que estoy sintiendo, usando para ello tanto el cuerpo como la propia mente. Aprender a identificar lo que sienten los demás.
- La comprensión emocional. Entender a qué me invita y de qué me avisa cada emoción, para integrar su comprensión en la vida como algo habitual.
- La gestión emocional. Haciendo con las emociones algo sano para la propia persona y adecuado al entorno en el que se está, y usando para ello técnicas corporales y cognitivas.

## Metodología

Taller práctico, que permita interiorizar los contenidos de un modo dinámico y divertido.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Centro Cultural Santa Clara. C/Casilda Iturrizar, 10 • 48920 Portugalete**

**13, 20 y 27 de febrero de 2019**

10:00-13:00

# LANTEGIA: NOLA ERATU PARTE-HARTZERAKO LAN-TALDEAK JOLASEN BITARTEZ (LUDOPEDAGOGIA)

## Dinamizatzailea

**TRESPIÉS KOLEKTIBOA**

Trespiés kolektiboaren proiektuek honako ardatz hauek izaten dituzte: lanbide-prestakuntza, irakasleen trebakuntza, ludikoaren ikerkuntza eta animazio soziokulturala gaiak hauexek izanik: nazioarteko lankidetza, garapenari begirako hezkuntza, hezkuntza formala, generoa, gatazketako bitartekaritza, komunitateko medikuntza eta boluntariotza.

Kolektiboak bizikizunetan eta praktikan oinarritutako metodologia darabil.

## Helburua

Gizarte, kultura, politika eta hezkuntza mailan lan egiten duten erakunde edo instituzioen barruko pertsonak eta profesionalak hezten laguntzea da jolasaren aukeren hurbilpen kontzeptual eta metodologikoa eskainiz. Berebat, jolasa loturak eta ezagupenak eraikitzeko alternatiba bat da jolasaren eta birsorkuntzaren arloan elementu teorikoak eta teoriko-praktikoak eskaintzen dituelarik.

## Metodologia

Ludopedagogia hezkuntza herritarrean sorburua duen hezkuntza-metodologia da. Helburu du gizarte-eraldaketa lortzea ardatza delarik prozesu sozio-komunitarioak lantzea jolasaren bitartez.

Proposamen metodologikoa bizikizunetan oinarritutako lantegietan lan egitea da. Lantegiotan jarduera ludiko askotarikoak lantzeaz gain, elkarrekin haietaz hausnartu egiten da.

## Edukiak

Ludopedagogian eta haren metodologian sartzea. Jolasa: definizioak eta kontzeptuak. Jolasaren gaineko begirada pertsonalaren eragina gure egunerokotasunean. Errealitate ludikoa. Oroimen ludikoa. Sentsorialaren logika, emozioak, zaratak, topaketa txarrak, topaketa onak. Afektibitate-inbolukratzea, asaldatutako arrazionaltasuna.

## Baldintzak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkarteetako kideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Pando Aisia. Miguel de Unamuno kalea, 43 • 48920 Portugalete**

**2019ko otsailaren 14a, 21a eta 28a**

9:00-14:00

# TALLER: CÓMO CREAR GRUPOS DE PARTICIPACIÓN Y TRABAJO A TRAVÉS DEL JUEGO (LUDOPEDAGOGÍA)

## Dinamizador

**COLECTIVO TRESPIÉS**

Desarrollan proyectos de formación profesional, perfeccionamiento docente, investigación del fenómeno lúdico y animación sociocultural y comunitaria en temáticas tales como cooperación internacional, educación para el desarrollo, educación formal, género, mediación en conflictos, medicina comunitaria y voluntariado.

Operan desde una metodología basada en la vivencia y en la práctica.

## Objetivo

Colaborar en la formación humana y profesional de quienes forman parte de una asociación o institución que trabaja en el ámbito social, cultural, político y/o educativo, brindando una aproximación conceptual y metodológica al potencial que tiene el fenómeno del juego como alternativa de construcción de vínculos y conocimientos, aportando elementos teóricos y técnico-prácticos en el área del juego y la recreación.

## Metodología

La Ludopedagogía es una metodología educativa nacida de la educación popular, que busca aportar a la transformación social y cuyo eje es trabajar los procesos socio-comunitarios desde el juego.

La propuesta metodológica será el trabajo en talleres vivenciales donde se pondrán en práctica un amplio repertorio de actividades lúdicas, y se reflexionará conjuntamente sobre ellas.

## Contenidos

Introducción a la Ludopedagogía y su metodología de trabajo. El juego: definiciones y conceptos. Influencia de la mirada personal sobre el juego en nuestras prácticas cotidianas. La realidad lúdica. Memoria lúdica. La lógica de lo sensorial, emociones, ruidos, desencuentros, buenos encuentros. Involucramiento afectivo, racionalidad alterada.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Polideportivo Pando Aisia. C/ Miguel de Unamuno, 43 • 48920 Portugalete**

**14, 21 y 28 de febrero de 2019**

9:00-14:00

# EDITATONA: WIKIPEDIAN ARTIKULUAK EDITATZEKO MARATOIA. EMAKUMEAK ETA PORTUGALETE



## Dinamizatzailea

**MENTXU RAMILO**

Profesional in(ter)dependentea. Politika eta Administrazio Zientziako doktorea. Emakume eta gizonen arteko berdintasun masterduna. Prestatzaile eta coach digitala. Internet Euskadi Elkartean Gizarte arloko kidea izan zelarik, ***TallerWeb1.0*** ekimena (2006) bultzatu zuen, hainbat euskal herri administrazioren webguneak hobetzeko herritarrak kontuan hartzearen aldekoa. ***Enredando*** bloga sareratzen du 2004. urtetik hona. Proiektu kolaboratzaileak maite ditu. ***Doce Miradas*** elkarlaneko kidea da.

## Helburua

Wikipedia entziklopedia kolaboratzailean Portugaleteko emakumeen presentzia sustatu eta hobetzea.

## Metodologia

**#EditatonaPortugalujas**

**Editatona.** Edukiak editatzeko maratoi honetan hainbat lagun elkartuko gara, artikuluak sortzeko oraindik ere Wikipedian artikulurik ez duten Portugaleteko emakume nabarmenei buruz eta dauden artikuluak hobetzeko. Helburu nagusia da Wikipedia entziklopedia askeko genero arrakala gutxitzea.

Parte-hartzaileek hainbat baliabide izango dute eskura, artikuluak Wikipediaren irizpideen arabera egin ditzaten, iturriak aipatzeari eta egiaztagarritasunari dagokionez. Wikimediako aditu batzuek gidatuko dituzte parte-hartzaileak editatzen duten bitartean, lehenengo urratsak egin ditzaten entziklopedia kolaboratzailean.

**Aldez aurretiko prestakuntza.** Wikipediaren inguruko hastapenak. Elkarlanean lan egin eta beldurrak uxatu. Edukiak bilatu, testuak idatzi eta editatona prestatu.
2019ko martxoaren 21ean, 10:00etatik 13:00etara.

## Parte-hartzeko eskakizunak

Kontua zabaltzea espainolezko Wikipedian. Nola egin ez badakizu, lagundu egingo dizugu.
Ezinbestekoa da aldez aurretiko prestakuntza saiora bertaratzea.

## Norentzat

Interesa duten guztientzat. Oso garrantzitsua: ez da beharrezkoa editatzen jakitea, ez eta gaiaren inguruko ezagutza edukitzea ere.

## Tokia

**Informatika gela. UNED. Ignacio Ellacuría parkea, 3**
**48920 Portugalete**

**2019ko martxoaren 22a**
10:00-14:00

# EDITATONA: MARATÓN DE EDICIÓN DE ARTÍCULOS EN WIKIPEDIA. MUJERES Y PORTUGALETE

## Dinamizadora

**MENTXU RAMILO**

Profesional in(ter)dependiente. Doctora en Ciencias Políticas y de la Administración. Máster en Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres. Formadora y coach digital. Fue vocal de Sociedad en la Asociación Internet Euskadi, donde impulsó la iniciativa ***TallerWeb1.0*** (2006) para contar con la ciudadanía en la mejora de las páginas web de varias instituciones públicas vascas. Desde 2004 escribe en su blog ***Enredando***. Le apasionan los proyectos colaborativos. Y es una de las ***Doce Miradas***.

## Objetivo

Este maratón tiene como objetivo promover y mejorar la presencia de la mujer portugaluja en la enciclopedia colaborativa Wikipedia.

## Metodología

**#EditatonaPortugalujas**

**Editatona:** el maratón de edición de contenidos es una actividad en la que un grupo de personas se juntan con el objetivo de crear artículos sobre las mujeres relevantes de Portugalete que todavía no tienen su propia entrada en la Wikipedia y mejorar los ya existentes, reduciendo así la brecha de género que existe en la enciclopedia libre.

Se pondrán a su disposición recursos para redactar los artículos siguiendo los principios de citación de fuentes y verificabilidad de Wikipedia. Participarán expertos de Wikimedia para guiar a las participantes durante el proceso de edición y las ayudarán a dar sus primeros pasos en la enciclopedia colaborativa.

**Formación previa:** introducción a Wikipedia. Trabajar de forma colaborativa y quitar miedos. Buscar contenidos, redactar textos y preparar la editatona.
Día 21 de marzo del 2019 de 10:00 a 13:00.

## Participación y requisitos

Abrir una cuenta en Wikipedia en español (si no sabes cómo, te ayudamos).
Asistir a la sesión de formación previa es imprescindible.

## Destinatarios

Personas interesadas. Importante: no tienes que saber editar ni sobre la temática.

## Lugar

**Aula de Informática. UNED. Parque Ignacio Ellacuría, 3**
**48920 Portugalete**

**22 de marzo de 2019**
10:00-14:00

UNED BIZKAIA

# LANTEGIA: TALDE-DINAMIKAK ETA TEKNIKA PARTE-HARTZAILEAK

## Dinamizatzailea

**SILVIA CARRERAS GRAZIA**



Gizarte Lanean diplomatua eta Lan Zientzietan lizentziatua. Bitartekari-lanak egiten ditu eta coach profesionala ere bada. Azken hamar urteotan banakako eta taldekako garapenaren arloa jorratu du. Lan-gatazketan bitartekari ere aritu da. Egun LKS enpresako giza-garapenaren taldeko aholkulari seniorra da.

## Helburua

Lantegi honek helburu du parte-hartzaileei erakustea taldeko teknika eta dinamika aktiboak erabilgarri direla parte-hartzerako prozesuak eta guneak abian jartzeko orduan. Horiek horrela, haien elkarteko jardueretan erabiltzeko modua izango dute.

## Edukiak

- **Gamifikazioa.** Jolasa sinbolo gisara talde dinamikaren hainbat alderdi lantzeko, taldearen kohesioa eta konsistentzia hobetzeari begira.
- **Teknika aktiboak.** Taldeak dinamizatzeko teknikak, geure burua hobeto aurkeztu eta hobeto ezagutzeari begira.
- **Teknika psikodramatiko eta gestaltikoak.** Antzerkia, hainbat teknika sinboliko eta rol jokoa erabiliz, korapiloak askatu, aipaezina aipatu eta gatazkak konpondu egingo ditugu.

## Metodologia

Lantegi praktikoa izango da, edukiak dinamikotasunez eta dibertimenduz barneratu daitezen.

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Santa Klara kulturtegia. Bilera-aretoa. Bigarren solairua.**
**Casilda Iturrizar kalea, 10 • 48920 Portugalete**

**2019ko martxoaren 27a, apirilaren 3a eta 10a**
10:00-14:00

# TALLER: DINÁMICAS DE GRUPO Y TÉCNICAS PARTICIPATIVAS

## Dinamizadora

**SILVIA CARRERAS GRAZIA**

Diplomada en Trabajo Social y Licenciada en Ciencias del Trabajo, es además Mediadora y Coach profesional. Durante los últimos 10 años, se ha dedicado al desarrollo personal y de equipos además de a la mediación en conflictos laborales, formando parte en la actualidad como consultora senior del equipo de desarrollo de personas de LKS.

## Objetivo

Este taller persigue el objetivo de presentar a las personas participantes las utilidades que las técnicas activas y dinámicas de grupo tienen a la hora de facilitar procesos y dinamizar espacios participativos, para que puedan usarlas en su actividad asociativa.

## Contenidos

- **Gamificación.** El juego como simbolismo para trabajar aspectos propios de la dinámica grupal. Para mejorar la cohesión y la consistencia grupal.
- **Técnicas activas.** Técnicas de dinamización grupal. Para presentarnos, para conocernos mejor.
- **Técnicas psicodramáticas y gestálticas.** A través del teatro, de técnicas simbólicas y del rol play. Deshacemos nudos, hablamos de lo que no se puede nombrar, resolvemos conflictos.

## Metodología

Taller práctico, que permita interiorizar los contenidos de un modo dinámico y divertido.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro de Portugalete

## Lugar

**Centro Cultural Santa Clara. Sala de Convenciones 2ª planta.**
**C/Casilda Iturrizar, 10 • 48920 Portugalete**

**27 de marzo, 3 y 10 de abril de 2019**
10:00-14:00

# SENTSIBILIZAZIO SOLASALDIA: HAINBAT ESTILO GIDALERRO SEXISMORIK GABEKO HIZKERAREN ALDE



## Dinamizatzailea

**NOEMÍ PASTOR**

Itzultzailea eta hizkuntza normalizazioko teknikaria Portugaleteko udaletxean. Hizkuntza Plangintzako Graduondoko Diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean. Filologia Hispanikoko Lizentziatura eta Itzulpengintza Masterra Deustuko Unibertsitatean. ***Doce Miradas*** elkarlaneko blogkidea.

## Helburuak

- Hausnarketa egitea pentsakera eta hizkeraren arteko loturaz.
- Sexismorik gabeko hizkeraren aldeko proposamenak aztertzea.
- Proposamen horien ondorioen berri izatea.

## Edukiak

Zergatik aldatu hizkera. Aldatzeko proposamenak. Gizarte ingurua: kontrako erantzunak. Ondoreak eta oihartzuna.

## Metodologia

Solasean arituko gara, edukiak lagunkiro barneratzeari begira.

## Betekizunak

Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkartekideek izango dute lehentasuna.

## Tokia

**Santa Klara kulturtegia.**
**Casilda Iturrizar kalea 10 • 48920 Portugalete**

**2019ko maiatzaren 6a**
10:00-12:00

# CHARLA DE SENSIBILIZACIÓN: GUÍA DE ESTILO PARA UN LENGUAJE SIN SEXISMO

## Dinamizadora

**NOEMÍ PASTOR**

Traductora y técnica de normalización lingüística en el Ayuntamiento de Portugalete.
Diplomatura de Postgrado en Planificación Lingüística en la Universidad del País Vasco.
Licenciada en Filología y máster en Traducción por la Universidad de Deusto.
Integrante del blog colaborativo ***Doce Miradas***.

## Objetivos

- Reflexionar sobre las conexiones entre pensamiento y lenguaje.
- Analizar las propuestas de expresión del lenguaje inclusivo y no sexista.
- Conocer sus repercusiones.

## Contenidos

Por qué cambiar el lenguaje. Propuestas de cambio. Contexto social: reacciones contrarias. Repercusiones.

## Metodología

Mantendremos una conversación que permita interiorizar los contenidos de un modo amigable.

## Requisitos

Tendrán prioridad las personas pertenecientes a entidades sin ánimo de lucro de Portugalete.

## Lugar

**Centro Cultural Santa Clara.**
**C/Casilda Iturrizar, 10 • 48920 Portugalete**

**6 de mayo de 2019**
10:00-12:00

Ayuntamiento de
Portugaleteko Udala



**Informazioa eta izen-emateak**
Información e inscripciones:

**ADAKA**
Santa María, 1-1º. 48920 Portugalete
Tel. / Fax: 944 96 15 28
www.adaka.org - adaka@adaka.org

**PORTUGALETEON**
HERRITARREN PARTE-HARTZEA
PARTICIPACIÓN CIUDADANA

**www.portugaleteon.org**

@PortugaleteON

PortugaleteON

Portugalete
FUNDACIÓN
Manuel Calvo

Adaka
PORTUGALETEKO BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO DE PORTUGALETE